

KOLABORAZIOAK

El eco de la manifestación silenciosa

Patxi Zabaleta, Rebeka Ubera, Dani Maeztu

Representantes de Aralar

Contaremos que tuvimos la honra de estar presentes en la más grande de las manifestaciones que jamás ha conocido Euskal Herria y que fue la del 7 de enero pasado, en Bilbao, en solidaridad con los presos y presas vascos.

Contaremos que lo más impresionante no eran las más de ciento cincuenta mil personas que abarrotaron la ciudad vasca, sino la contención, la seriedad y el compromiso responsable de todas ellas.

Se nos había impuesto operosamente que la manifestación fuese silenciosa, pero el eco que provocó el silencio se pudo escuchar más lejos que el mayor

de los gritos y de los estruendos. Se nos prohibieron provocadora y miserablemente fotografías de papel y reconocimientos de cariño en imágenes, pero las presencias se multiplicaron en los recuerdos invisibles. Las fuerzas políticas que irresponsablemente trataron de impedir o perturbar el ejercicio democrático de esta manifestación utilizando hasta el argumento terminológico vergonzante de negar la condición de presos políticos a los presos vascos incurrieron también en falsedades propagandísticas de toda índole. Pero prevaleció la sensatez de la ciudadanía.

Y es que las actitudes de las caras de las no-fotografías apa-

recían invisiblemente serias pero responsables; las gargantas de los no-gritos callaron hasta enronquecer; y las no-declaraciones de política fueron la expresión más política que pueda imaginar la dignidad.

Como un faro, el Acuerdo de Gernika tenía marcado el camino de la obligación y de la madurez. Misión cumplida.

Hay nadadores de piscina que nunca serán capaces de nadar en aguas profundas. Ha habido organizaciones, partidos, medios de comunicación y personajes que no han tenido la generosidad de estar a la altura de la responsabilidad, y el peor castigo de los tiempos no es el de no ser convocados a la plaza del verdadero debate, sino el de haber antepuesto sus alicortas miserias al desafío de los tiempos.

Tenemos que defender la casa de nuestras descendientes mucho más que la del padre. Tenemos que salvar la tierra que compartimos, mucho más que la propiedad, el legado y la herencia. Tenemos que basarnos en la palabra y el diálogo, que son la esencia de la igualdad y la diversidad, bajo cuyo tejido ha-

bita la paz.

Solo hay arma más potente

que la palabra, solo hay un eco más potente que el de la voz y son el silencio acordado y el eco del silencio pactado. Si mil personas bien organizadas constituyen un poder, si diez mil personas comprometidas pueden defender un pueblo, cien mil o ciento cincuenta mil personas responsables son la garantía de ganar el futuro.

Es importante, muy importante el mandato recibido. Es grande, muy grande la responsabilidad originada por la manifestación. Nuestra obligación es que se cumpla lo que quiere de forma expresa la inmensa mayoría de la gente de esta tierra.

Con la manifestación del día 7 no se ha cumplido el objetivo, aunque se haya cumplido la misión. Tiene que modificarse la política penitenciaria en el sentido reivindicado y ese objetivo hay que conseguirlo. Ese es un camino de justicia, democracia y paz y, por lo tanto, también de reconocimiento digno a todas las víctimas de todas las violencias, como ha declarado el Acuerdo de Gernika.

Txillardegi heriotzean

Adolfo Arejita

Euskaltzaina

Bere izen-deiturez baino, Jose Luis Alvarez Enparantza, Txillardegi izengoitziaz ezagunagoa euskal gizartearen, eta batez ere hizkuntza eta literaturaren eremuan gabiltzanontzat, joan zaigu gure arteetik. Aspalditxoan isil antzezan baguenen ere, gaurko bellaundi gazteek ere ezaguna dute Txillardegiaren izena, zuzen edo zeharka haren hots eta aipuen uhinak euromana ere aise heldu direlako.

Euskara lantzen dutenek, filologietan, itzulpengintzan edo maila ertainetan, entzunak dituzte ziur asko haren zenbait obra, batzuk aspaldikoak. Hala Larresoro goitizenaz argitaratu zuen "Sustrai bila" (1970), euskal gramatikaren «zenbait euskal korapilo» askatu nahirik idatzia, hurren argitaraldian ugariagotuko zuena, "Oinarri bila" (1977) izenburupean, «morfosintasian eta fonologian». Ezagunagoa dute, eta dugu agian, geroxeago aterako zuen "Euskal Gramatika" (1978) modu sistematiko eta didaktikoagoan lantzen zuena.

Euskal fonetika-fonología

ikasketetan landu behar izan dutenek, eta areago horrako gaiotan murgildu diren ikerlariak ezinbesteko erreferentzia izan dute, aitzindarietarik izan baita gai horiezaz goi ikaskuntzarako ikasliburu adiutuak prestatzen: "Euskal Fonología" (1980) eta "Euskal azentuaz" (1984), aldizkari berezietan idatzi dituen ikerlanak aipatu beharrik gabe ere.

Euskara batuaren prozesua hasieratik ezagutu dugunok ondo dakigu Txillardegiaren ekarriak eta iritziak horretan ere izan duen pisua, bai iritzi artikuluen bidez, bai hitzaldien bidez, zer esanik ez eta batez ere bere sorkuntza literarioaren bidez. Euskararen batasunaren aldeko lehian gazterik eta gihartsu sartu zen. Goizetikoa dugu nolabait 1974an atera zuen "Euskara batua zertan den" saioa. Iparraldeko euskararen berezitasunak eredu batuaren barnean nahi zituen; ez zuen ametitzen hegoaldeko hizkerten oinarrituko zen eredu bat, iparraldeko ere ondo kontuan hartuko zuena baizik. Abertzale zintzo legez Euskal Herri bat, ipar eta hego, nahi zukeen be-

zala, halaxe euskal hizkuntza batua ere. Mitxelenaren arrastotik ez urrun, inola ere.

Bestela ere lagun zaharra eta hurbila zuen Mitxelena, hizkuntza gaietan ez ezik, literatura eta pentsamoldeetan ere, politikaz arin banatu baziren ere euren bideak. Kidetasun horren leku dugu "Leturiaren egunkari ezkutua" (Bilbao 1957) narratzailearen Mitxelena egin zien hitzaurre fina eta ongietorrizkoa: «Eskerrak eman nahi nizkiok (...) eleberri hau euskeraz eman digülako», zioen azkenerantz, eta gogorazten «egin beharra ez dela sarritan nolanahi betetzen, heroismo hutsa eskatzen digula». Urte ilun, antzu eta zail haietan heroismorik asko zen, izan ere, Txillardegi bezalako gazte euskaldun berri batentzat holako erronka bati oratzea. Neu ere gaztetxoa nintzen, Bilbon "Euskaltzaindiaren arduraean" argitaratu zen liburu mehe hori eskuratu eta irakurri nuenean. Haize berria zen euskal literaturan. Existentialismo ikasten geniharduen geure filosofiako ikasketetan, Sartre eta Camus zein ziren bagenekien, baina euskarazko literaturan Txillardegi bidez sartu ginen itsaso horretan. Luze gabe etorriko ziren, bere aldian hots egin zuten beste eleberri bi: "Peru Leartzako" (1960) eta "Elsa Scheelen" (1969), biak bere atzerrialdian onduak, baina orduko gure euskara-eskoletan, berariaz literatura lantzen genuen ikastaroetan, zabal iraku-

rriak eta aztertuak zirenak. Etxeratu ondoren ere sekula ez du bazter utzi eleberrigintza, "Haizeaz bestaldetik" (1979) obrarekin segida emanet.

Saioa euskaraz lantzea izan zuen Txillardegiak beste urrats goiztiar berrikuntzetaiko bat. Baionan edizio apal batez urratu zuen bidea 1965ean, "Huntz eta hartaz" saio-bildumaz. Salbatore Mitxelena ere ("Unamuno eta abendats", 1958) arlo horretan jarduna zen, Koldo Mitxelena bezala eta geroxeago Joxe Azurmendi ("Hizkuntza, etnia eta marxismoa", 1969) izango genuen bezala. Txillardegiak bere praxiaz erakutsi zigan gazterik, euskara «noranahikoa» zela, zientzia eta pentsaera gaitean barrena murgiltzeko.

Aldizkarietan barrena artikulu asko idatzia da, politika, filosofia, hizkuntza, literatura, historia zein osteango gaiez. Horien sorta hautatuak egin eta gizarteratzeko ordua heldu ote den nago.

Labur epaituz, beldur barik esan daiteke beste batzuekin batera, gudu ondoko euskal gizartearen joan-etorrian pentsarea aldetik eraginik handieneartikoa izan duen idazle, politiko eta pentsalaria izan dugula Txillardegi. Gizon maitagarrria eta maitatua, beraren iritzi zorrotzak batzuetan mingarri gertatu arren zenbaiti.

Esker on eta goraintzi, Txillardegi, euskarari, euskal literaturari eta euskal gizarteari eman diozun guztiagatik, hutsaren truke. Gogoan zaitugu.